

OFERTA FORMATIVA **SETEM**

Curso:

**Estrategias para la
Cooperación al Desarrollo**

Setem

Patrocina:



GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO

SETEM Hego Haizearen iritzian, gizonen eta emakumeen eskubideak eta ingurumena errespetatzen dituen eta justizian, elkartasunean eta berdintasunean oinarrituta dagoen mundu bat eraiki ahal izateko, ezinbestekoa da herritarrak aktiboak, konprometituak eta arduratsuak izatea eta gizartean aldaketa barne-hartzaileak lortzeko prozesuak martxan jartzeko gai izatea, eta horixe sustatu behar da, elkarriketan oinarritutako harreman batetik abiatuz. Planteamendu horri jarraiki, ezinbestekoa da pertsonak elkartu eta behar bezala egituratutako dinamiken bidez elkarrekin hausnartu ahal izateko guneak erabilgarri jartzea, beren esperientzia, ohitura eta jarreretan oinarrituz parte har dezaten.

Garapenerako Lankidetzarako Estrategiak

Hainbat esparrutan (giza eskubideak, genero-berdintasuna, garapenerako hezkuntza, kontsumo arduratsua eta bidezko merkataritza, osasuna eta garapena) garapenerako lankidetzaren planteamendu berrietan sakontzeko ikastaroa. Garapenerako lankidetzaren-estrategiak eta -proiektuak garatzeko oinarritzko jardura eta analisirako irizpide eta tresna teorikoak eta praktikoak eskaintzen ditugu. Esparru akademikoan nahiz mugimendu sozialen arloan estatu-mailan eta nazioartean izen ona duten irakasleekin.

IKASTAROAREN EGITARAU XEHEA

Ikastaroa **gaikako 10 moduluk** osatzen dute, 90 ordu dira guztira. Guztiak dira **presentzialak**.

Gainera, plataforma bat (campus birtuala) eskuragarri dago. Bertan jartzen da eskuragarri moduluen materiala, beste jardura eta ikastaro batzuen berri ematen da, etab. eta taldeak berak eskatuta eztabaida-foroak sortzen dira.

SETEM Hego Haizeak **Gasteizen** duen egoitzan egiten da (San Vivente de Paúl 10, beheko sol.), autobus-geltokiaren ondoan.

Ordutegia: **ostiralak 16:00-20:00 eta larunbatak 10:00-14:00.**

- 1393/2007 Errege Dekretuaren bitartez ezarritako antolamendua baino lehenagoko ikasketa-planak egiten ari diren ikasleek ikastaroarekin aukera libreko kredituak lor ditzakete. **Ez da baliozkoa Graduren bat egiten ari diren ikasleentzat.**

Modulu guzti-guztietan da nahitaezkoa **saioetara joatea, eta gutxienez saioen % 80ra joan behar da** ikastaroko ziurtagiria jaso ahal izateko.

Ikastaroko saio presentzialak

0. saioa. Ikastaroaren inaugurazioa, Setem Hego Haizearen aurkezpena. Taldeak espero duena azaldu eta dokumentazio orokorra entregatu.

Irailaren 27a, ostirala, 15:30. Setem-ek Gasteizen duen egoitzan. Vitoria-Gasteiz. SETEM Hego Haizearen prestakuntza-batzordearen eskutik.

1. modulua. Munduko egungo egoeraren alderdi historiko, politiko eta sozioekonomikoak.
Arcadi Oliveres Irailaren 27a eta 28a

Edukia eguneratzeke dago.

Globalizazioaren garaia: konexioa ala deskonexioa?

Proiektu estrukturalistaren krisia.

Gerraosteko itun sozialaren krisia.

Elkartasun krisia.

Elkartasun proposamen berria eraikitzea gobaltasunaren garairako.

2. modulua. Giza Garapen Iraunkorra.
Imanol Zubero Urriaren 4a eta 5a

1. **Garapenaren ideiaren genealogia.** Garapena estrukturalismoa baino lehen. Unibertsalismoa, garapenaren arauketa-oinarria.

2. **Garapenaren praktika.** Garapena eta modernizazioa. Garapena batuketa positiboko joko bezala.

3. **Garapenaren muga ekosistemikoak.** Proiektu estrukturalistaren krisia proiektu unibertsalista gisa.

4. **Auschwitz globalaren tentazioa.** Unibertsalismoaren garapena eta porrota.

5. **Arazoa izena da, ez izenondoak.** Garapena berrikusteko proposamenen urritasunak eta mugak.

6. **Garapena birplanteatzea,** kontzepziotik hasiz eta neurketarekin jarraituz.

7. **Garapena ez diren beste aukera batzuk:** hazkuntzarik gabeko garapen baterantz. Proposamen teoriko nagusiak. Esperientzia praktikoen bilaketa.

3. modulua. Giza Eskubideak.
Iván Forero Urriaren 18a eta 19a

Giza Eskubideak eta Garapena, prozesu historiko bakarraren bi aurpegiak.

Basakeriatik Duintasunera. Giza eskubideen mugimenduaren jatorria eta garapen historikoa. Kontzeptu-esparrua eta aurrekariak. Testuingurua, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren oinarriak eta edukia eta gaur egun zein mailatan dauden indarrean. Ezaugarriak.

Nuremberg-etik Erromara. Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen eta Gatazka Armatuen Nazioarteko Zuzenbidearen positibazioaren prozesu historikorako hurbilketa. Nazioarteko babes-sistemaren arauketa-esparrua. Giza eskubideak defendatzeko eta sustatzeko tresnen bilakaera.

Giza Eskubideen egungo egoera munduan. Herrien, komunitateen eta pertsonen bizipen esanguratsuak. Giza eskubideen urraketen adierazpen zehatzak. Kasuaren azterketa: giza eskubideen krisia Kolonbian.

Nazioarteko lankidetzaren arloko erronkak. Arazo nagusiak. Giza eskubideen egungo mugimendua. GKEek giza eskubideak defendatzeko eta sustatzeko egin dituzten jarduerak.

4. modulua. Generoaren teoriarako sarrera.

María Viadero Azaroaren 8a eta 9a

I. Generoaren teoriarako hurbilketa teorikoa

- Proposamen feminista bat – Kontzeptu erabakigarriak

II. Egungo egoera: generoen arteko desberdintasunen gaineko ikuspegi orokorra

- Nazioartean -
- Eta gure inguruko errealitatean?

III. Generoen arteko Berdintasuna Nazioarteko Lankidetzan

- Bilakaera eta elementu erabakigarriak
- Jabekuntza- eta zeharkakotasun-estrategiak
- Ikuspegi feminista eta giza eskubideen ikuspegia

5. modulua. Tokiko ekoizpen iraunkorra eta garapena.

Mikel Kormenzana Azaroaren 15a eta 16a

Landako garapena elikaduraren arloko subiranotasunaren ikuspegitik

Egungo testuingurua. Munduko elikadura-arazoen dimentsioak eta garapena

- Sarrera.
- Elikaduraren arloko subiranotasuna.

Eta Euskal Herrian?

- Sektoreko egoera.
- EHNE estrategia.
- Prestakuntza.

- Lurra eskuratzea.
- Merkatuetara sartzea.
- Azpiegiturak.
- Komunikazioa, informazioa, sentsibilizazioa.
- Aliantzak.

6. modulua. Osasuna eta garapena.

Ismael Díez del Val Azaroaren 22an eta 23an

Osasunaren arloko testuingurua herrialde txiroetan.

Gaixotasun- eta heriotza-kausa nagusiak.

Osasuna eskubide gisa.

Osasun-zerbitzuak eskuratzeko gaitasuna mugatzen duten faktoreak: geografikoak, kulturalak, erlijiosoak, ekonomikoak...

Lehentasunak zerbitzuen eskaintzan.

Larrialdi programetarako sarrera.

Baliabide bibliografiko erabilgarriak.

7. modulua. Garapenerako lankidetzaren instituzionala.

Jorge Gutierrez eta tokiko herri-administrazioetako ordezkariak. Azaroaren 29a.

Ibilbide nagusiak, ezaugarriak eta joera politikoak Euskadin garapenerako lankidetzaren arloan.

Garapenerako lankidetzako **estrategiak, tresnak eta kanalak** erakundeetatik.

Zein diren gure erakundeek lankidetzaren arloan **gaur egun dituzten lehentasun eta irizpide nagusiak.**

Herritarrek euskal erakundeek **lankidetzaren politiketan duten parte-hartzea.**

Lankidetzaren arloko **aurrekontu-banaketa eta inbertsioa** EAEn. % 0,7?

Bideragarritasuna eta iraunkortasuna. Jarraipena eta ebaluazioa.

Politiken koherentzia eta koordinazioa.

Etorkizuneko erronkak eta apustuak.

8. modulua. Proiektuak: plangintza, jarraipena eta ebaluazioa.

Berónika Garrosa eta Edurne Pujana, SETEM Hego Haizea Azaroaren 30a eta abenduaren 1a

Proiektu teorikoen eta esparru logikoaren ikuspegiaren **kudeaketa-zikloaren gaineko** ezagutza teorikoa.

Proiektuaren diseinua eta kudeaketa **modu praktikoa**n menderatzeko instrumentuak.

Proiektuaren jarraipenaren ezagutza teorikoa.

Etikoki berdintasunez eta solidarioki jarduteko irizpideak (parte-hartzeak).

Bestelako metodologia batzuk: *Outcome mapping / irismenen mapaketa*

9. modulua. Kontsumo arduratsua, kontzientea eta eraldatzailea.

SETEM Hego Haizea

Abenduaren 13a eta 14a

1. Hazkuntza ekonomikoan oinarritutako garapen-kontzeptua.

Kontsumitzaileen papera aldaketa-estrategietan.

2. Kontsumo arduratsua eta eraldatzailea - kontzeptua.

3. Gizarte-iraunkortasuna eta ekologikoa.

Bidezko merkataritzaren kasua: ezaugarriak, bilakaera eta eraldatzeko potentziala.

Hegoaldea: Black Gold pelikula.

Iparraldea: janariaren arloko subiranotasuna, merkataritzako eta politikako eragina.

4. Arropa Garbia Kanpainaren kasua: eraldatzeko potentziala.

Hegoaldea: langileen papera.

Iparraldea: kontsumitzaileak.

5. Finantza etikoen kasua.

Finantza-merkatuen arazoak eta bankuaren kritika.

Alternatibak: Ereduek (Triodos eta Fiare)

6. Beste garapen bat lortzeko kontsumoa: baldintza eta klabe estrategikoak

10. modulua. Garapenerako hezkuntza.

Lankidetzarako eta Garapenerako Ekimenak. Incyde

Abenduaren 20a

eta 21a

1. Garapenerako Hezkuntzaren (GH) gainera ikuspegiak. Uste duguna eta badakiguna.

2. Hegoaldearen inguruko irudien analisisa eta gauzatzen diren sentsibilizazio-kanpainak.

3. Hegoaldearen inguruko irudien eta mezuen gainera jokabide-kodeak.

4. GHren ikuspegiak eta garapen-ereduekin duten harremana.

5. Hegoaldearen eta sentsibilizazio-kanpainen irudiak eta GHrekin duten harremana.

6. Garapenerako Hezkuntza gaur egun. Errealitateak eta erronkak.

